

Arimagabeak

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Larunbat euritsu batez Irungo Pequeña Velocidad ezagutu nuen, Nicolas Guerendiain Irungo Errepublikarrak elkartearen eta herri eragile gehiagoren lanari esker. Prentsaurrekora azaldu zen hedabide bakarra izan ginen, baina antolatzaileek, kexu agertu beharrean, mimoz egin zuten ekitaldia, denbora hartuz eta lekua sentitzeko aukera emanez.

Gipuzkoa osoan zutik dirauen kontzentrazio esparru bakarra ez eraisteko eta memoria gune bilakatzeko aldarria jasotzen duten txapak eta egutegiak ki-deen artean banatzen ari zirela, herritar batzuk atera ziren eraikina inguratzen duen hesitik, barrenean bizi diren katuei jana eman eta gero. Memoriaren

defendatzaileek aitortu ziguten hagitx litekeena dela abandonatua dagoen eraikina bota eta ondoan plaka bat jartzeara: “Hemen kontzentrazio esparru bat egon zen”. Grabatua gelditu zitzaidan Irungo Udalaren jokaera horren inguruan batek erran zidan esaldi bat: “Arima falta da”.

Gogora etortzen zaizkit Donostiako tren geltoki nagusiaren obretan goitik behera erortzen ikusi nituen zutabe arkitektoniko ederrak eta, nola ez, urpean itotako Itoitz eta Eugi bezala anputatutako herri gehiago. Zenbat horrelako, lekuek arima dutela ahanzten duten arimabeen krimenak.

Irungo pasealeku nagusitik, Colonetik (zer erran pertsonaia honen arimaz...),

hurbil dago Pequeña Velocidad, eta handik paseo bat eman nuen ekitaldia bukatutakoan. Haurrak ginela ia larunbatero kalean goiti eta beheiti ibiltzen ginen amaren eta izebaren eskutik, eta orduko komertzio eta dendak bilatzera jostatu nintzen. “Bakery” eta “pâtisserie” artean, ilusioa egin zidan batzuek eusten diotela ikusteak. Horietako batean sartu nintzen, txokolatea hartzera, eta ze bihotzeko ziztada komuneko azulejuak ere errekonozitzean, ze sentsazio gozoa! Mahai horiek, butakak, zerbitzariaren bat ere ezagutu nuen, beren jantzi dotore horiekin. Galduta nengoela uste nuen, baina aurkitu nuen nire burua. Hori bai, txokolatea eta opila lehen baino puska agudoago irentsi nituen. •

Putak

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Putak, genero eta orientazio orotakoak. Prostituzioa aboltzeko lege proposamena laster aurkeztuko du PSOEek Madrilgo Parlamentuan.

Espainian negozio itzela da prostituzioarena, behinik proxeneta eta nagusientzat, ez hola sexu-langileentzat. Sentitzen dut informazio nahikorik ez dugula gaiaren hegi guziak ezagutu eta iritzi zehatz eta jantzirik izateko. Ea Kongresura eramango den iniziatibak eztabaida zabal eta sakona irekitzen duen, ohiko jokabidea baitugu alde bati edo besteari soilik helduz eraikitzea ikuspuntua. Prostituzioa abolitzearen alde

egotea jarrera errazena delakoan nago, “tabla rasa” egitea bezala. Salaketa nagusia sexu-langileen esplotazioa bada, genero eta orientazio bateko zein besteko, ez ote legoke aukerarik jarduera beren borondatez burutzeko prest leudekeen osasuna, segurtasuna eta langile-eskubideak arautuz eta bermatuz prostituzioa lanbide duin gisa proposatzeko?

Ezin bada ezin da. Baina irudipena daukat jardueraren egoera iraingarria eta marjinala baliatuz “lakra” bat bailitzan, kosta ahala kosta, gizartetik errotik erauzi behar dela. Eta, berriro diot, ez da nahikoa informazio zabaltzen; falta ditugu bortxaz behartuak, irainduak, esplotuak, bahituak eta borondatez ari direnen zenbatekoak.

tatuak, bahituak eta borondatez ari direnen zenbatekoak.

Errazena guztia abolitzea da, zailena diseinazioa egin, zati ustel guziak ezabatu eta baleko parteekin lanbide duin bat eraikitzea da. Posible ote da prostituzio duinik? Pentsaezina ote da sexuaz jantzi ahal izatea, naturaltasunez, duintasunean oinarritutako prostituzioaren unibertsitate praktikoa? Sexuaz gehienok esperientzia eta ibilbide partikular traketak eta ez hain traketsetatik ikasi badugu ere, unibertsitate praktikoa osagarria izango litzateke. Marka da baina, sexuaz jantzeko, biluztu beharra dago, gorputzez eta buruz. •